



## LURZORUAREN FUNTZIONAMENDUA ULERTU: LURREN EHUNDURA ETA HONEN ONDORIOAK

Lurzorua ez da bizitzarik gabeko materiala. Sistema konplexua da, etengabe aldatzen dena. Sistema horren elementu bakoitza gainerakoekin lotuta dago, eta modu batera edo bestera parte hartzen du etengabeko aldaketa prozesuetan.


Gure baratzeetako lurzoruak hainbat osagaien nahasketa bat da:

- Tamaina desberdineko partikula mineralak. Partikula mota ezberdinen arteko proportzioak luraren EHUNDURA finkatuko du eta poroen kopurua eta tamaina zehaztuko ditu. Honek baldintzatuko du ura eta airea nola pasatzen diren bertatik, hau da, lurzoruaren iragazkortasun maila.
- Partikula mineralen arteko poroak edo hutsuneak. Garrantzitsua da jakitea hutsune handiak airez betetzen direla, eta poro txikiak berriz, urez.
- Elementu kimikoak, horietako asko gure baratzeetako landareentzat elikagaiak direnak: nitrogenoa, fosforoa, potasioa, burdina, zinka, manganesoa, etab.
- Materia organikoa eta humusa. Hauek deskonposatzean elementu kimiko bihurtuko dira (gure landareentzat elikagaiak).
- Izaki bizidunak, batzuk ikusgaiak direnak gizakiarentzat (zizareak, harrak, satorrak, etab.) eta beste batzuk mikroskopikoak. Azken hauek, nahiz eta tamaina txikikoak izan, ezinbestekoak dira lurzoru osasuntsu bat izateko; izan ere, lurreko materia organikoa landareentzako elikagai bihurtzeko prozesuetan parte hartzen baitute.
- Airea, behar-beharrezkoa gure baratzeetako landareen sustraiarentzat eta lurreko izaki bizientzat.
- Ura, landareak elikatu ahal izateko behar-beharrezkoa. Izan ere, landareek lurretik partikula mineralak xurgatu ahal izateko uretan nahastu behar dituzte.


PARTIKULA MINERALAK ETA POROAK  
PARTÍCULAS MINERALES Y POROS



ELEMENTU KIMIKOAK  
ELEMENTOS QUÍMICOS




IZAKI BIZIDUNAK  
ORGANISMOS VIVOS



Lurzoruaren EHUNDURA lurrean dauden partikula mineralen arteko proportzioaren araberakoa da. Partikula mineralak, tamainaren arabera, honelakoak izan daitezke:

- Hareak, partikula handienak dira.
- Lohiak, tamaina ertainekoak.
- Buztinak dira partikula mineral txikiak.


Partikula-mota bakoitzaren proportzioaren arabera, lurzoruak mota desberdinetakoak izan daitezke (irudian ageri den bezala).



Gutxitan aurkitzen ditugu lurzoru guztiz hareatsuak, buztintsuak edo lohitsuak; normalean, lurzoruek hiru partikula mota dituzte proportzio ezberdinetan. Halere, hiru lurzoru mota horien propietateak ikusiko ditugu, hiru partikula mota horietako oso proportzio handia duten lurren portaerak uler ditzagun.


## LURZORU BUZTINTSUAK

Lurzoru buztingsuetan hutsune txikiak dira nagusi: ur asko eta aireztapen gutxi duten lurzorua dira. Heze daudenean, lokatzu egiten dira, eta lehortzen direnean, berriz, lurrazala izugarri gogortzen zaie.




## LURZORU HAREATSUAK

Lurzoru hareatsuetan hutsune handiak dira nagusi: ur gutxi eta aireztapen handia duten lurrak dira. Oso lurzoru iragazkorra dira, eta ura azkar igarotzen da haietatik.



## LURZORU LOHITSUAK

Lurzoru lohitsuetan hutsune ertainak dira nagusi, eta horietako batzuek ura eta beste batzuk aireaz beteta dituzte. Ibaiertzetako ohiko lurrak izaten dira hauek, errekek jaistean ibai bazterretan uzten duen materialez osatuak.



Hiru partikula motak behar bezala orekatuta daudenean, lurzoru frankoak sortzen dira, baratzezaintzarako ezin hobek diren lurrak. Hauxek dira lur frankoen portaerak:

## LURZORU FRANKOAK

Lurzoru frankoak dira haren, lohien eta buztinen proportzio justua duten lurrak; beraz, bakoitzaren abantaila guztiak dituzte, baina ez eragozpenak. Tamaina desberdinetako hutsuneak dituzte, airez okupatuta hutsune handienak eta txikiak urez beteta.  
Lurzoru egokiak dira baratzezaintzarako, ia edozein landareentzako.



Gipuzkoako nekazaritza-lur gehienak lurzoru franko-buztintsuak dira, edo buztintsuetatik oso hurbil daude; beraz, lurzoru buztintsuak eta lurzoru frankoen antzeko propietateak izango dituzte, dituzten 3 partikula-moten proportzioaren arabera.

Nolanahi ere, gure baratzeetako lurzoruen ehundura hobetzeko ahalegin guztiak lur franko bihurtzeko egin behar dira. Ez da egun bateko lana, ezta hilabete batekoa ere; lurren ehundura hobetzea urtetako lana izaten da. Hona hemen gomendio batzuk lagungarriak izan daitezkeenak:

### LURZORU BUZTINTSUEN EHUNDURA HOBETU

- Aldizka harea silizeoa gehitu. Hurrengo urtarorako lurra prestatzen dugun landare-aldaketen aldiak dira unerik egokienak harea gehitu eta baratzeetako lurreko 20-25 cm azalekoenetan nahasteko. Urtean pare bat aldiz egiten badugu, bi urtean nabaritu ahal izango dugu hobekuntza.
- Aldizka ere materia organikoa gehitu: simaur deskonposatua, konposta, lastoa, baratzeetako hondakinak, etab. Lurrarekin harea bezala nahastu behar da.
- Laborantza-eremuak zapaltzea saihestu. Zapaltzeak lurarren trinkotzea areagotzen du eta airearekiko iragazgaitzagoa bihurtzen du. Horregatik, oso egokia da landaketa, jorraketa eta antzeko lan guztiak egin ahal izateko moduko zabalerako landaketa-bankaletan antolatzea lurzatiak. laboreak bideetatik. Horrela, bideak landu ezin diren eremuak izanen dira, eta zapalduko ditugun eremu bakarrak.
- Lurzoruaren azalean putzuak sortzea saihestu. Horretarako hoberena bideei inklinazioa ematea da, soberako euri eta ureztatze urak lurzorutik azkar alde egin dezaten.

- Sustrai lodiak dituzten landareak landatzea, hala nola arbiak, errefauak, errefautxoak, azenarioak, eta abar: airea lurzoru buztintsuetan sartzen laguntzen dute eta aireztapena hobetuz.
- Ezinbestekoa da lur buztintsuak lantzea, sasoiak daudenean, hau da, hezetasun handiegirik gabe daudenean edo lehorregi ez daudenean.